

BANDOA (B24-2021)

BOLUNTARIOAK TXERTAKETAN LAGUNTZEKO

Abuztuan Baztan-Bidasoa bailarako txertaketa saioak Donezteben izanen dira. Saio hauetan laguntzeko boluntarioak behar dira. Bortzirietako herriek abuztuaren 4 eta 17ko saioetarako boluntarioak antolatu behar ditugu. Goizeko 8etatik 18.00ak arteko txandak antolatu behar ditugu.

Lan erreza da egin behar dena: jendea zein ilaretan jarri behar den azaldu, jendea bideratu txertoa non hartu behar duen, ezinduei lagundu eta abar.

Norbait prest balego boluntario lanak egiteko deitu dezala Berako udalera 9:00tik 13:00tara, 948630005 telefonora.

Mila esker zuen laguntzagatik.

Bera, 2021-07-27
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña